

AFRIKA'KO IPUIN / ALEGIAK



PIZTI BERBALDUNAK

Afrika'ko agozko elertia neurri bageko iturria da irudimenezko alegiak aurkitzeko. Berbaldunak eta ekintzailleak diran piztiak dira norki oraingo onetan. Erria bera da edesle eta irakatsi ederrak emoten dabez.

Ugarisoak

Lurrean agertu zan lenengo ugasarioa beronen azkenetan egoan, baiña il-aurretik bere senideak (seme-alabak, illobak eta birlobak) nai ebazan aurrean. Uretza-ondoan agertu ziran ba ugasarioaren senide guztiak. Ugasario nagusia bere abots barrukoia gaz, berbetan asi jaken onelan:

—Seme-alabok! Ni ilten nazanean zuetatik zeñek lurperatuko nau?

Ez egoan erantzunik.

Orduan, itxaroten aspertuta, esan eban:

—Ni ilten nazanean norentzat izango dira nire ondasunak?

Beingoan entzun zan guztien erantzuna batera:

—Neutzat! Neutzat!

Ikusten da, ondasunak indar geiago daukela, etxeko maitasunak baiño.

Narru zerrendatua

Antxiña, astonabar edo zebreak narrua gaurko leoien antzekoa eukan eta leoiak eukan narru zerrendatua.

Asto nabarrak bekaitza eutson leioiari bere narruko zerrendakaitik eta esan eutson:

—Gauza bat eskatu bear dautzut.

—Zer? –esan eutson leoiak.

—Zure narrua eukitea nai neuke.

—Zergaitik ori?

—Zu eizara joatea gaitxa dalako. Urriñetik ikusten dira zure kolorezko zerendak. Baiña zure narrua nik artu ezker, eta zuk nirea, iñok ez zaitu ezagutuko eta eizan errez egingo dozu.

Leoiak ez eban ezer esan eta egun pare bat artu ebazan erantzuteko. Gero joan zan astonabar edo zebreagana eta esan eutson:

—Ondo diñozu! Aldatu daigun narrua!

Astonabar edo zebreak bere narruan zerrenda zuriak eta baltzak ikusi ebazanean, pizti guztiai emon eutsen aldakuntzaren albistea.

—Zur egon zaitez! Orain leoiak nire narrua daroa!

Leoia asarretu egin zan ori izeka egitea zalako eta astonabarrari jarraitzen asi zan bere narrua eskuratzeko.

Arrezkero astionabar edo zebrak leoiarentzat arrapakiñik onenak dira.

Leizearen laguna

Antxiña leoinabarra ta sua lagunak ziran. Leoinabarra basobaltzean bizi zan eta sua leiza baten. Bide-aldi luzeak egiten ebazan leoinabarrak sua ikusten joateko. Bein baten esan eutson:

—Zu zergaitik ez zara etorten ni ikustera, ni joaten naiatzun lez?

Zergaitik zagoz beti leiza onetan sartuta arri baltz onein artean?

Suak erantzun eutson:

—Oba da ni emen egotea. Kanpora urteten ba´dot arriskugarria izan naiteke.

Baiña leoinabarrak, ekin eta ekin, lortu eban bere adiskidea leizatik ateratea. Onek esan eutson:

—Ederto! Baiña orain garbitu egizu leizearen aurrea

Leoinabarra nagia zan eta bedarrak kendu ebazan eta orri zikatuak bertan itzi. Suak leizatik urten ebanean, aizeak eraginda, su aundia atera eban, zugatzak be erre arte. Leoinabarrari be narrua erre jakon.

Orregaitik, gaur be, aldean daroaz leoinabarrak erre-uneak eta sua urriñetik ikusten dauanean iges egiten dau.

Urarentzat zurubia

Lur osoa legor egoan. Ienak be ez ekien egarria zelan kendu. Oneik alkartu egin ziran, zer egin aztertzeke.

—Nire ustez –esan eban ienarik gazteenak- beste leku batera joan bear dogu mendietatik ura jausten dan leku batera.

—Eta non daukagu adorea olako ibillaldi luzea egiteko-esan eben bestek.

Laiño baltz bat igaro zan zerutik eta azpian artu ebazan.

—Begiratu gora —esan eban iena zurrak iñoz eskolara joana zalako. Zertarako joan beste leku batera? Laiño orrek ez dauka urik? Goazen laiñora eta nakoia edango dogu.

Ontzat artu eben eta laster bururatu jaken:

—Eta zelan joango gara laiñora?

—Zurubi edo mailladi bat bear dogu. Bai! Bakoitxa beste baten sorbaldan jarriko gara laiñoraiño eldu eta ura edateko.

Asi ziran ori egiten, baiña ienarik txikienak beste guztien gainean egoala, esan eban:

—Adiskideok! Laiñoa oraindiño urrin dago!

Iena zurrak esan eban:

—Zutundu zaiteze guztiok eta orrelan lortuko dogu laiñoraiño eltzea.

Zurubia aunditzeko lanean ebiltzala “Krak” zaratea entzun zan eta guztiak jausi ziran alkarren gainera.

Orregaitik, arrezkero, ienak atzeko ankak daukez laburragoak eta errenka lez ibiltzen dira.

✠ OLAZAR´tar Martin´ek